

Leinuen lurraldean

Gizon-emakumeek erraldoi eta herensugeengan sinesten zuten garai ilun batera garatuta Toti Martínez de Lezeak bere azken eleberrian: *Enda Lur* (Erein). Garai gogorra zen, eta beste lurralde batzuetatik etorritako inbaditzaileei egin behar izan zieten aurre orduko leinuek.




t: Itxaso Marina / a: Aritz Albaizar

Enda Lur eleberrri epiko-historiko-mitologikoa da. "Eleberrri eta pelikula fantastikoak gustatzen zaizkit. Horri lotuta dugun imajinarioa anglosaxoia da, eta pentsatu nuen: "Hainbeste legenda, pertsonaia mitologiko, paisaia zoragarri... ditugula kontuan izanik, zergatik ez kokatu Euskal Herrian bertan halako istorio bat?".

Larrabetzuko idazleak adierazi digunez, eleberrri fantastiko bat idazteko asmoa izan zuen hasieran, euskal mitologian oinarriturik, baina azkenean seigarren mendean kokatu zuen istorioa, historiarako duen joerak bultzaturik. "Garai har-

tan, frankoek eraso zioten Euskal Herriari iparraldetik, lurraldea konkistatzeko, eta godoek, berriz, hegoaldetik. Nik frankoekin izandako gatazkan ipini dut arreta, eta Ipar Euskal Herrian kokatu dut ia istorio osoa, euskal tribuak bizi ziren antzinako lurraldeetan, haiek Andorrraraino iristen baitziren orduan". Lehengo euskaldunen sinesteak ere batu ditu eleberrian. "Jendeak antzina sinesten zuena ere historikoa da, guda bat historikoa den bezala. Lehengo kontu zaharrak balira bezala hitz egiten dugu mitologiari buruz gaur egun, baina grekoek beren mitologian sinesten zuten, nordikoek beren mitologian, eta gure arbasoek ere bazituzten beren sinesteak".



Enda euskarazko hitza da, eta leinua esan nahi du. Liburu honetan, pertsonaia sorta zabala aurkezten digu Totik: Endara, Ihabar, Garr, Ozen, Baladaste... Haiek eta beste batzuek leialtasunaren eta traizioaren artean aukeratu beharko dute; askatasunaren, justiziaren eta morrontzaren artean.

Batez ere nobela historikoa lantzen duen idazlea da Toti, baina oraingo honetan genero berri batekin ausartu da. "Izan ere, oso aspergarria da beti gauza bera idaztea. Aldaketa behar dut, hala eskatzen didate gorputzak eta buruak. Neure buruari erakutsi behar diot gauza naizela eleberrri fantastiko bat, edo umorezko



KAFETEGIA
IAZI
JATETXEA
Jata kalea, 2 – DERIO
Tel.: 944 54 29 56

MARMOLGINTZA
GOYO
SUKALDE-GAINEKOAK OBRAK HILERRIAK

Ugaldeguren 1 ind, 18-B nabea
48160 Derio, Bizkaia
T.: 94 454 02 93 - Faxa: 94 454 50 63



ELORRIETA
INSTALACIONES
ETXE- ETA INDUSTRIA-ELEKTRIZITATEA
Uribe kalea, 12 beheha Derio 48160
94 454 03 86
639 57 98 48 – 639 58 25 47

*“Jendeak antzina
sinesten zuena ere
historikoa da, guda bat
historikoa den bezala”*

eleberrri bat, edo gaztetxoentzako liburu bat... idazteko”. Haren hitzetan, oso pozgarria izan da *Enda Lur* idazteko prozesua, oso baliagarria gure historiari eta ohiturei buruz gehiago ezagutzeko. Besteak beste, historia liburuak eta entziklopediak arakatu ditu, eta eleberrian aipatzen diren lekuak bisitatu ditu.

Aurrerakin bat ere egin da liburuaren sustatzeko, eta YouTube jarri da ikusgai: bilatzailearen leihatilan, *Enda Lur* idatzi behar da hura ikusi ahal izateko. Adiune proiektuen fabrika enpresak egin du aurrerakin hori, eta larrabetzuarrak ibili dira aktore bertan. Musika Maite Itoizek (El-fenthal taldea) ipini du.

Beharrian

Enda Lur eleberria euskaraz zein gazteleraz eman da argitaratu. “Gazteleraz idatzi eta bere liburuak euskaratuta dituen idazle bakarra naiz. Nire beharrian bat da, argitaletxeari beti ipintzen diodan baldintza”.

Ate joka dugu Durangoko Azoka, eta hara joateko irrikan dago Toti. “Esperientzia bakarra eta ederra da: hainbeste euskaltzale, euskal kulturari dioten maitasunak leku berean bildurik; adiskideekin eta ezezagunekin topo egitea... Eta gainera, barnetegi sakona da niretzat! Zoragarria da”.

Eleberriarren promozioan buru-belarri dabil Toti; elkarrizketak han eta hemen ematen, aurkezpenak egiten... Lan neke-tsua da, baina asko gustatzen zaiona. “Oso berritsua naizelako eta liburuak idazteko prozesua zelaz izan den besteei kontatzeko aukera ematen didalako”. Hurrengo proiektuei dagokienez, aurreratu digu badabilzkiola ideia batzuk buruan. “*Lur* bilduma amaitutzat eman dut eta beste proiektu bat egin nahi dut zazpi urtetik hamaika urte bitarteko gaztetxoentzat. Hurrengo eleberrirako ere badauk zerbait pentsatuta... Baina horri guztiari urtariletik aurrera emango diot forma”.



SARRERAK AURRETIK EROSTEKO:
TXARTELDEGIAN
Edozein ekintza hasi baino
ordu bat lehenago



BFA
DFB
Bilakaite Foru
Albaniako
Diputazioan
Foral de Biskaiak



SONDIKAKO KULTUR ETXEA
Cestero kalea, 1 (elizaren atzean)
Telefonoa 94.453.64.13

ANTZERKIA

3 TXERRITXOAK ETA OTSOA
Glu Glu (musikala, euskaraz)
3 urtetik aurrera
Abenduak 21, 17:00etan
Prezioa 6 €





FRIENDS, LA ISLA DE LOS MONSTRUOS
88' AG (2D) EUSKARAZ
Abenduak 6, 18:00
Abenduak 7, 17:00



DOS A LA CARTA
88' AG (2D)
Abenduak 6, 20:30
Abenduak 7, 19:30



LAS AVENTURAS DEL PEQUEÑO FANTASMA
92' AG (2D)
Abenduak 14, 17:00



LOS JUEGOS DEL HAMBRE SINSAJO - PARTE 1
125' EG-7 (2D)
Abenduak 14, 19:30
Abenduak 20, 20:30



ST. VINCENT
103' EG-7 (2D)
Abenduak 20, 18:00
Abenduak 21, 19:30



LOS PINGÜINOS DE MADAGASCAR
92' AG (2D)
Abenduak 27, 18:00
Abenduak 28, 17:00



DIOS MIO, ¿PERO QUÉ TE HEMOS HECHO?
97' AG (2D)
Abenduak 27, 20:30
Abenduak 28, 19:30

ZINEA







2D: 4 € 3D: 6 €

*oharra: produktorearen behar-izanen arabera, programazioak aldatuak jasan ditzake